

III Nazioarteko Topaketa Ekosozialista

AZKEN MANIFESTUA



2016ko irailaren 23, 24 eta 25ean Bilbon III Nazioarteko Topaketa Ekosozialistetan elkartutako pertsonok:

IRIZTEN DUGU

1.- Kapitalismoa giza-bizitza ahalbidetzen duten bi oinarritzko menpekotasun nagusiei bizkarra emanda eta hauen kontra garatu dela. Lehenik eta behin, ez du kontuan hartzen beste espezie bizidunen antzera, naturatik lortzen dugula bizitzeko behar duguna, eta bigarrenik, ezkutatu egiten du gure biziraupenerako errotik menpekoak garela beste pertsona batzuk eskaintzen diguten zaintza eta denborarekiko, jaiotzatik heriotzara arte.

2.- Ezjakintasun eta ezkutitze honen jatorria, kapitalismoak balio ekonomikoa dirutan neur daitekeenari soilik ematen diola da. Ez fotosintesia, ezta ura edo karbonoarena bezalako ziklo naturalek, ezta birsorkuntza eta giza-zaintzari lotutako lanak ezin dira euren prezioan oinarrituta aztertu, eta ondorioz, ikusezinak dira ekonomia kapitalistarentzat.

3.- Menpekotasun hauetatik eratorritako muga guztiak ahaztuta, natura zein beste pertsonetikiko, jendarte kapitalistetako ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak, irabazi eta pilatze pribatua baino ez ditu bilatzen, eta hazkunde etengabeko eta mugarik gabekoan oinarritzen du bere erreprodukzioa.

4.- Mugarik gabeko hazkunde honek bete-betean egiten du talka planetaren muga biofisikoekin. Gero eta nabarmenagoa da baliabide naturalak agortzen ari direla (ur edangarriaren eskasia, petrolio merkearen aroaren amaiera berehalakoa, mineral estrategikoen eskasia, arrantza-lekuen kolapsoa, basoak soiltzea...), ekosistemen degradazioa (bioaniztasunaren galera azeleratua, zoru eta erreserba hidrikoen kutsadura, ekosistemek eskainitako zerbitzuen degradazio edo gain-ustiaketa...) eta aurrekaririk ez duen natur orekan aldaketa-kaltetzea, ez soilik esparru lokal edo herrialde mailakoan, iraganean bezala, baizik eta lehenengoz ingurumen sistema globalean, klima-aldaketa da honen adierazpiderik nabarmenena: EKOZIDIOA. EMERGENTZIA EKOLOGIKO egoera honek, gainera, milioika ingurumen errefuxiatu sorrarazten ditu.

5.- Diskurtso ofizialek kontrakoa esan arren, 2016ko Parisko Goi Bilera ez da gai izan modu eraginkor eta azkarrean klima aldaketaren ondorio suntsitzaileriei aurre egiteko bidea adosteko. Besteak beste, kutsatzaileei erregai fosilekin jarraitzea eta korporazioei energia berriztagarriak kontrolatzea ahalbidetzen dielako.

6.- Gainera, eta zehazki kapitalismoaren fase neoliberal honetan, indarrean dagoen ekoizpen eta kontsumo ereduak oso injustua eta desorekatua den jendarte globala sortu du. Gutxi batzuen gain-kontsumoa, xahuketa eta aberasteak gehiengoaren eskasia eta pobrezian dute jatorri, eta baitan denboraren konfiskazioan ere, jendarte patriarkaletan, nagusiki emakumeek erreprodukzio soziala eta ongizatearen eguneroko kudeaketara bideratzen dituztenak. LARRIALDI SOZIAL egoeran dagoen jendarte langabezia, prekarizazioa, eskubide sozial eta laboralak, zerbitzu publikoen eta babes sozialaren higatzeak ondorioz dakarren zaintza etxera eramate eta ondasun komunen pribatizazioarekin. AUSTERIZIDIOA.

7.- Egun milioika lagun euren jatorrizko herrietatik alde egitera behartzen dituen gosete, ingurumen arazo eta gatazka armatuek merkatu globalean lehiatzen diren aktoreen nazioarteko harremanak konfiguratzeko dituzten egiturazko arazoietan dute jatorria.

8.- Planetaren muga biofisikoen kontrako talka honek eta eskubide laboral eta sozialetan emandako itzelezko atzerakada injustizia sozial handikoa, euren herritarren eskubideen defentsa euren buruak gobernatzeko herriek duten erabakitze eskubidea ukatuz soilik inposa daiteke eta demokrazia gutxiagorekin (desinformazioa, merkatuen diktadura, aukeratuak izan ez diren teknokraten gobernuak, Espainiako konstituzioaren aldaketa express-a, hauteskunde aginduen ez betetze sistematikoa, Europako Troikaren interbenzionismo irekia erreskatatuak izan diren herrialdeetan), beldurra zabaltzea ("shockaren doktrina", mass-mediaren informazioa, gobernuen iruzur eta gezurak eta dena nahikoa ez denean, errepresioaren gorakadarekin (errekorrak gaintzen ari gara azken urteotan ekologista eta bestelako disidenteen hilketetan). Europar Batzordeko lehendakari Jean-Claude Junckerren adierazpen

gezurtian: “Ezin da europar itunen kontrako erabaki demokratikorik egon”.

ADIERAZTEN DUGU:

1.- Natura eta gizateria berarekin berradiskidetuta egongo den etorkizunak IKUSPEGI ALDAKETA ERROTIKOA exijitzen du, aldaketa erradikala ekoiztu eta kontsumitzeko moduetan, pertsona guztion oinarrizko beharrianak bizitzaren erdigunean jarriko dutenak, demokratikoki zehaztuak eta planetaren muga biofisikoen arabera.

2.- Horregatik, konponbidea ezin daiteke KAPITALISMOA izan, BERDEZ mozorrotuta egon arren, kontsumo eredu berdina eta egungo egoerara ekarri gaituzten egitura ekonomiko eta sozialen eredu berdina erreproduzitzen baldin badu. Beharrezkoa da ekoizpen bitarteko jabetza pribatua oinarritutako ekoizpen eredu kapitalista aldatzea. Azken finena, galdera funtsezkoak dira zer ekoiztu, zertarako eta norentzat, nortzuk hartzen duten parte erabakiak eta nola ekoiztu.

3.- Bizitzaren aurka sistema kapitalistak egindako ofentsibaren aurrean, ezinbesteko irizten diogu alternatiba eraikitzea. Honetan, agenda askatzaile guztiek parte hartu beharko lukete, berdintasunean (feminismoa, sindikalismoa, mugimendu indigena eta nekazaria, ekologismoa, etab). Hori dela eta, subjektu askatzaileen arteko eztabaida indartzea beharrezkoa da, guztia ikuspegi internazionalistarekin eta lurraldeen gaineko ikuspegi integral batetik (gorputzak, memoria, jakintzak, ondasun komunak, etab. barneratuz).

4.- Nahi zein ez, ekonomiaren esfera materialaren deshazkundera eramango gaituzten trantsizio ekosozialen prozesura goaz. Ulertzen dugu trantsizio ekonomikoek (eredu produktiboa eta energetikoa), sozialak (zaintzaren antolaketa soziala), kulturalak (hezkuntza), legislatiboak eta lurralde mailakoak (trantsizioan dauden udalerriak), sozialki justuak izan behar dutela pertsonen eta komunitatearen zerbitzura, ingurumen aldetik orekatuak eta demokratikoki erabakiak, bestela, gero eta pertsona gutxiagok (botere handiek) euren egungo bizitza-estiloarekin jarraitu ahal izan dezaten, beharrezkoa da gero eta

jende gehiago biziraupen duina bermatuko dien gutxieneko materialetara ez iristea.

5.- Ezinbestekoa da pertsona guztiontzat bizi baldintza duin eta autonomoak bermatzea.

6.- Horregatik, urgentzia ekologikoari erantzuteko gai izango diren trantsizio batzuen alde egiten dugu, larrialdi sozialek sortutako arazoei ere erantzungo dietenak. Horretarako, ezinbestekoa ikusten dugu beti elkarrekin ibili ez diren bi esparru hauen arteko kontrastea eta lankidetzak. III Topaketa Ekosozialista hauetako helburu nagusietakoak izan da esparru biei elkarrekin egiteko espazio zabal eta anitza. Sindikatuen protagonismoak garrantzia handia izan du honetan.

7.- Hazkunde mugagabearen mito edo planetaren mugekiko talkak kontuan hartzen ez dituen ilusio neoknesianoaren aurrean, BANAKETARI serio heltzen bazaio soilik egin ahal izango da bi esparruon topaketa, lan produktibo eta erreproduktiboari.

8.- Banaketa honek lanaren beraren birplanteamendu batek lagundua etorri behar du, horrela beharrezko diren lan guztiak erdigunean jarriz gaur egun indarrean dagoen pentsamenduaren aurrean, produkzioaren izaera kontuan ez duena ekonomikoki errentagarria den bitartean. Lana esfera merkantilean soldataren truke egiten dena baino ez da egungo ereduaren arabera, jendarte-erreproduktioaren lotutako lan erraldoia ezkutatzuz.

9.- Sozialki beharrezkoak diren sektore sozialak bultzatu behar dituzte botere publikoek, eraikinen birgaitze energetikoari zein energia berriztagarriei eskainitakoak, garraio publikoei, agroekologiari, zaintzari eta aisiari lotutako zerbitzu komunitarioei, osasun zein hezkuntzari. Energia eta material gutxi kontsumitzen duten sektoreak, beste alde batetik, eskulanean intentsiboak direnak eta horregatik, trantsizio ekosozialetan murriztu edo desagertu diren sektore ekonomikoetako enpleguen galera ekidinezina konpentsatzeko lagungarriak izango dira.

10.- Trantsizio justu eta iraunkor hauek gerta daitezten, ezinbestekoa da gure jendarteak ikuspegi feministaz blaitzea. Emakumeen berdintasunerako eskubidea esparru guztietara zabaltzeko gai izango dena, zapalketa patriarkarra eta honek hauen kontra sortzen duen indarkeriarekin amaituz; eta herritarren ahalduntzea sustatu (demokrazia eta burujabetza) botere-guneak hartu eta euretatik herritarren gehiengoaren nahiak bahitzen dituzten elite pilatzaille eta ase-ezinen aurrean. Horregatik, komunitateek eragiten dieten gaien inguruan erabakitze eskubidea, politika zein ekonomiaren inguruan. Dituen kontraesan guztiekin, gure ustez bide hori hobeto egokitutako komunitate horietako pertsonen oinarrizko beharrezanetara eta ingurumenarekiko harreman orekatura merkatu itsua edo teknokraten diktaduraren bidea baino.

11.- Ahalduntze hori adierazi egin behar da baliabide natural eta ondasun komunak kudeaketa kontrol komunitario eta kolektiboan (sare elektrikoaren bermunizipalizazioa), trantsizio hauei ekiteko ezinbestekoa izango den banka publikoaren berreskurapenean eta legez kanpoko zorraren salaketa, austerizidiorako aitzakia.

12.- Hezkuntza izan behar da trantsizio ekosozial hauetako oinarrizko zutabe bat. Hezkuntza paidea bezala: bizitzan zeharreko auto-erakuntza kolektibo eta pertsonala, izaki ekomenpeko eta interdependiente garen neurrian. Hezkuntza neoliberalaren ikuspegi instrumentala baztertuko duena eta kooperazioa jarriko duena lehiaketaren ordez, lankidetzaren indibidualismoaren ordez, prozesuak emaitzen ordez... Sustenga ezina den kulturaren eduki eta praktika erreproduktiboak aldatzen lagunduko duena eta kultura hau astinduko duten galderak egin geure buruei, eskola instituzio eraldatzaile bihurtuz erreproduktorea izan beharrean.

GURE KONPROMISOAK

1.- Munduan zehar kontzientzia ekosozialista eta feminista zabaltzea.

2- Nazioarteko sare ekosozialistaren sarea bultzatu, Vía Campesina, Plan B

para Europa... bezalako plataformei lotuta, edo Justizia Klimatikoaren aldeko mugimenduak, edo pertsona guztien giza eskubideen aldekoak, bereizketa eta kategoriarik gabe.

3.- Urgentzia ekologikoren eta emergentzia sozialen esparruetan aritzen diren eragile politiko eta sozialen arteko topalekua eta lankidetzaren sustatzea, eredu kapitalista aldatzeko herritarren gehiengoak lortze aldera.

4- Gobernu instituzioetara trantsizio ekosozial beharrezkoak erraztuko dituzten lege proposamenak eraman. Horien artean, lehentasuna dute testu konstituzionalean eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak babesteko dituztenak eta gure ondasun komunak babestuz eta euren kudeaketa eta gozameneko aukera berdina bermatuko dutenak.

5- Ingurumen kalteen kontrako borroketan parte hartu, bultzatu edo zabaldu, bereziki industria fosilaren inbertsio proiektu handien kontra, eta baliabide naturalen eta ondasun komunak pribatizazioaren kontra.

6.- TTIP, CETA, TISA eta ingurumena, lan harremanak, gure osasuna eta orokorrean, bizi-baldintzak larriki kaltetzen dituzten nazioarteko itunen kontra modu aktiboan lan egin hauekiko konfrontazio mugimenduetan.

7.- Ekonomia demokratiko, ekitatibo eta iraunkor; kontsumo bidezko eta arduratsu, berdintasunean eta elkar-laguntzan oinarritutako jendarte harremanak sustatuko dituen kultura alternatibo baten hastapenak gaurdanik eraikitzea bilatzen duten esperientzia guztiak bultzatu.

8- Gure egunerokotasunaren iraultzari ekin. Kontsumo ohitura indibidualen baturak ezin ditu beharrezkoak diren egiturazko aldaketak ordezkatu, zentzu honetan, komeni da Mahatma Gandhiren esaldia gogoratzea: "Gutxirekin bizi, besteek bizitzeko gutxienekoa izan dezaten". Edukitzearen aurretik izatea lehenetsi beharko lukeen ikuspegi honek iraunkorrak ez diren praktikak bertan behera uzten lagundu beharko liguke, osasungarri eta ekologikoak izango diren jarduerak sustatzea eta modu berdinean banatu pertsonen zaintzako lan guztiak.